

# ALEJANDRO LANDABURU

## ARGAZKILARIA



ELORRIOKO GARAI BAT





# **ALEJANDRO LANDABURU**

## **ARGAZKILARIA**

### **ELORRIOKO GARAI BAT**



**2003**

Editorea: Gerediaga Elkartea  
José M<sup>a</sup> Uriarte Astarloak paratua  
Tratamendu Digitala: Aitor Larrañaga  
Imprimaketa: Berekintza  
Legezko Gordailua: BI-2338-03  
ISBN: 84-930217-7-6

**Pilar Landabururi:  
Zuhaitz eder hau zaindu ebana**

*Hay en la vida momentos que crean imágenes para siempre, y una de esas “fotografías” de la vida para mí es la imagen de Alejandro Landaburu, andando por la plaza, de un lado para otro, fotografiando. Fotografiando...*

*Sí, en los primeros años de mi vida apareció un señor mayor, algo potolo, lento pero constante al moverse, también era cojo y siempre llevaba una o dos cámaras fotográficas al hombro o al cuello. Yo siempre le veía en la plaza cuando allí había algo importante, o en Kurutziaga, o en la calle Berriotxoa o ... donde había un grupo numeroso de gente, no sé por qué, pero allí estaba Landaburu quien, pese a su aparente dificultad para moverse lograba llegar a todos esos sitios adonde yo también iba. Yo me preguntaba qué hacía, qué veía, en qué andaba, pues cada vez que le veía mis ojos se iban tras de él.*

*Con el tiempo he podido conocer parte de todo aquel trabajo que Alejandro hizo, y esa parte me ha ayudado a conocerle a él y a su mundo imaginario y ahora no tengo la más mínima duda de que toda esa labor nos ha guardado hasta nuestros días el más importante conjunto de imágenes de Elorrio, sus calles, paisajes y gentes, su historia en definitiva, que nos sirven para conocerlo mejor y sobre todo para quererlo más.*

*Por eso pienso que es un buen momento éste para glosar y dar a conocer la figura de Alejandro y su fotografía y qué mejor para ello que este libro, que les haga perdurar y que nos permita situarnos tras los ojos del fotógrafo, y nos dé así la posibilidad de conocer un mundo y un tiempo ya pasado pero no olvidado.*

*Disfrutemos este libro como una botella de buen vino fotográfico, una buena crianza, para que, gota a gota, con aroma incluso, nos llegue aquello que sus objetivos veían, lo que su cámara captaba y creaba y lo que su entorno era y crecía; podremos así ser espectadores privilegiados como sus ojos, podremos conocer sus mundos y tendremos la oportunidad de recordar, con él, nuestro viejo pueblo.*

*Por eso, y por Alejandro, brindemos.*

NIKO MORENO

Badira bizitzan betiko iraungo duten irudiak sortzen dituzten uneak, eta bizitzako "argazki" horietako bat da niretzat Alejandro Landabururenak: Alejandro plazan alde batetik bestera, argazkiak atera eta atera.

Bai horixe. Gaztetxoa nintzela edadeko gizon bat azaldu zen nire bizitzan. Potolo xamarrak zen, mantso ibili arren gelditzen ez zena eta herrena gainera. Beti sorbaldan behera edo lepotik zintzilik izaten zuen argazki-kamera bat edo bi. Plazan, Kurutziagan edo Berriotxoan kalean ekitaldi garrantzitsuren bat zegoenean edo jende-multzo handia zegoen beste edozein lekutan, hantxe ikusten nuen beti. Ez dakit zergatik, baina han egoten zen Landaburu; itxuraz mugitzeko zailtasunak izan arren, ni joaten nintzen leku guztietara iristea lortzen zuen. Ikusten nuen bakoitzean nire buruari galdetzen nion zer egiten ote zuen, zer ikusten ote zuen, zertan ari ote zen. Ikusten nuen bakoitzean, nire begiak bere atzetik joaten ziren.

Denborarekin, Alejandrok egindako lan guztiaren zati bat ezagutzea lortu dut eta zati horrek lagundu dit bera eta bere irudimen-mundua ezagutzen. Orain ez daukat zalantza-izpirik; bere lanari esker gorde dira gaur egun arte Elorrio eta bertako kaleak, paisaia eta jendea erakusten dizkigun irudi-bildumarik garrantzitsuena. Azken batean herriaren historia da utzi diguna, herria hobeto ezagutzeko eta, batez ere, gehiago maitatzeko balio digun historia.

Horiek horrela, une egokia iruditu zait hau liburu honen bidez Alejandro eta bere argazkigintza ezagutzera emateko. Helburu hauxe du liburuak: argazkilariaren begien atzean jarri eta iragandako baina ahaztu gabeko mundu eta garai bat ezagutzeko aukera ematea eta mundu nahiz garai horiek barruan iraunazaraztea.

Pentsa dezagun liburu hau argazki-ardo botila on bat dela, ardo ondu ederra, eta goza dezagun. Tantaz tanta, argazki-ardoaren usain gozoa ere dastatuz, antzeman dezagun argazkilariaren objektiboek ikusten zutena, bere kamerak harrapatu eta sortzen zuena, bere ingurunea eta ingurune horren hazkuntza. Modu horretara, argazkilariaren begien antzera, gu ere ikusle pribilegiatuak izango gara, bere munduak ezagutu ahal izango ditugu eta berekin gure herri zaharra gogoratzeko aukera izango dugu.

Topa dagigun horrengatik guztiarengatik eta Alejandrorenengatik.

NIKO MORENO

## ALEJANDRO LANDABURU (LABARIXA) PRIMER FOTOGRAFO DE ELORRIO

*La villa de Elorrio tiene cierto papel protagonista dentro de la historia de la fotografía de nuestro entorno. La primera fotografía conocida en la Merindad de Durango es la realizada hacia 1863 a los padres de San Valentín de Berriotxoaren por el fotógrafo durangués Pedro José de Landazuri. Durante el siglo XIX no conocemos profesionales de la fotografía en Elorrio. Sus establecimientos balnearios atrajeron a numerosas familias de la alta sociedad, que, a su vez, acercaban a la población fotógrafos itinerantes que ofrecían sus servicios a los veraneantes. Entre los miembros de estas familias podemos destacar la afición fotográfica de Eulalia Abaitua y de Pedro Telesforo de Errazkin, clientes de los baños, que nos han legado dos importantes archivos fotográficos, en los que encontramos varias imágenes de la villa. Los elorrianos que deseaban retratarse debían acercarse a las vecinas poblaciones de Durango o Bergara o esperar que algún fotógrafo itinerante pasara por la población en busca de clientes. Alejandro cubrirá este vacío existente y se convertirá en el primer fotógrafo profesional conocido de esta población.*

*Alejandro Landaburu Elgizazu nació el 11 de agosto de 1906 en Elorrio; fue el mayor de cinco hermanos (Alejandro, Tomás, Emilio, Julián, y Crispina). Su padre fue Antonio Landaburu Mурgoitiobeña, carretero y mecánico y la madre Eugenia Elgizazu Berrio, del caserío Esteibar en Gazeta.*

*Al igual que sus hermanos, de su padre recibió la afición a la automoción y pronto ejerció, primero de chófer de familias aristócratas y, después, de taxista, lo que le*



## ALEJANDRO LANDABURU (LABARIXA), ELORRIOKO LEHENENGO ARGAZKILARIA

Elorrioko hiribilduak zeresan handia du gure inguruko argazkigintzaren historian. Durangoko merindadean ezagutzen den lehenengo argazkia San Valentín Berriotxoaren gurasoei Pedro José de Landazuri durangarrak 1863 inguruau ateratakoa da. XIX. mendean Elorriion ez zen argazkigintzako profesionalik izan. Elorrioko bainu-etxeek handiki-familia ugari erakartzen zuten, eta haiek etortzearekin batera udatiarrei zerbitzuak eskaintzen zizkieten argazkilari ibiltariak ere herrira etortzen hasi ziren. Handiki-familia horietako kideen artean bazeuden argazkizaleak; esate baterako, Eulalia Abaitua eta Pedro Telesforo de Errazkin. Bainuetxeetako bi bezero horiek bi argazki-artxibategi garrantzitsu utzi dizkigute ondare moduan, hiribilduko irudiak ere tarteko ditugula. Beren burua argazkian ikusi nahi zuten elorriotarrek Durangora edo Bergarara joan behar izaten zuten argazkia ateratzera, edo bestela, argazkilari ibiltaria herrira bezero bila etorri arte zain egon behar izaten zuten. Alejandrok bete zuen herrian zegoen hutsune hori; bera izan zen herri honetan ezagutzen den lehenengo argazkilari profesionala.

Alejandro Landaburu Elgizazu Elorriion jaio zen, 1906ko abuztuaren 11n. Bost senidetatik (Alejandro, Tomas, Emilio, Julian eta Crispina) zaharrena zen bera. Antonio Landaburu Mурgoitiobeña gurdi-egile eta mekanikoa zuen aita eta Gazetako Esteibar baserriko Eugenia Elgizazu Berrio ama.

Anaiek bezala, berak ere automoziorako zaleta-suna jaso zuen aitarengandik, eta berehala hasi zen lanean, aurrena aristokrata-familien txafer moduan eta gero taxi-gidari bezala. Lan horiei esker, sarritan ibili zen penintsulan eta Europako hainbat lekutan.



Alejandro Landaburu Argiñetako jaietan.

*permitió viajar con frecuencia por la península y distintas partes de Europa.*

*Se inició en el mundo de la fotografía, creemos que desde muy joven, probablemente a finales de la década de los años veinte, influenciado quizá por algún miembro de esas familias pudientes que como chofer se relacionaba o por la actividad fotográfica de Foto Germán en Durango con su estudio y tienda de venta de material para el aficionado. De estos años se conservan varias fotografías del equipo de futbol de Elorrio, del que Alejandro formaba parte, que nos inducen a pensar en su autoría y en el inicio por esas fechas de la actividad fotográfica de nuestro protagonista.*

*Estalla la fatídica guerra civil y Alejandro, de ideología tradicionalista, se enrôle en la compañía "Radio Requeté de Campaña", una compañía de transmisiones bajo el mando del general García Valiño en la que sirvió como cocinero, actividad que cultivaría durante toda su vida. No olvidó llevar entre su equipaje su cámara fotográfica, que en adelante sería una compañera inseparable.*

*Javier Nagore Yárnoz en su libro En la Primera de Navarra - Memorias de un voluntario navarro en Radio Requeté de Campaña, cita y recuerda a nuestro personaje. Voy a reproducir pequeños pasajes de estas memorias: "... tomamos Rigoitia ...en una tejería abandonada pasamos varios días, instalando allí nuestras cocinas, en la que el gordo Alejandro Landaburu, fotógrafo, bonachón y requeté de Elorrio, nos preparaba suculentas paellas entre bombardeo y bombardeo..." Más adelante prosigue: "...Alejandro Landaburu, fotógrafo de Elorrio, chófer de "La Camuflada", la primera camioneta que tuvimos. Gordo -120- kilos,*



Uste dugu oso gaztetatik hasi zela argazkigintzan, hogeiko hamarkadaren bukaera aldera ziur aski, behar bada gidari-lanei esker ezagututako familia aberats haietako kideren baten eraginez, edo, bestela, Durangoko Foto Germánen argazki-jarduerak eraginda (estudioa eta zaletuentzat materiala saltzeko denda zeuzkan). Oraindik ere gordetzen dira urte haietako Elorrio futbol-taldearen argazkiak. Alejandro talde hartako kide zenez, badirudi berak egin zituela argazki haiak eta orduantxe hasi zela argazkigintza jardueran.

Zoritzarreko gerra zibila hasi zen, eta Alejandros, ideologiaz tradizionalea izanik, "Radio Requeté de Campaña" konpainian izena eman zuen. García Valiño jeneralaren zuzendaritzapean zegoen transmisio-konpainia hartan sukaldari aritu zen. Bizitza osoan aritu zen langintza horretan. Baina ez zitzaien ahaztu handik aurrera beti ondoan izan zuen argazki-kamera fardelean sartzea.

Javier Nagore Yárnozek *En la Primera de Navarra - Memorias de un voluntario navarro en Radio Requeté de Campaña* izeneko liburuan gure pertsonaia izendatu eta gogora ekarri zuen. Memoria horietako zenbait pasarte idatziko ditut ondorengo lerroetan: "... tomamos Rigoitia ...en una tejería abandonada pasamos varios días, instalando allí nuestras cocinas, en la que el gordo Alejandro Landaburu, fotógrafo, bonachón y requeté de Elorrio, nos preparaba suculentas paellas entre bombardeo y bombardeo...". Honela dio aurrerago: "...Alejandro Landaburu, fotógrafo de Elorrio, chófer de "La Camuflada", la primera camioneta que tuvimos. Gordo - 120 - kilos, cocinero de ocasión, de enredadísimo hablar vizcaíno-castellano. En alguna ocasión, en el que tuvo que sustituir en el servicio de trinchera a un compañero, Alejandro se expresaba así por la radio al enlazar con la del general: "¡Valiñoquieres, aquí te pongo pronto!..." Orrialde batzuk aurrerago, autoreak datu interesgarri gehiago ematen dizkigu: "Finalmente,



*Famili aristokratikoen txoferrak. Alejandro ezkerrekoa da.*

cocinero de ocasión, de enredadísimo hablar vizcaíno-castellano. En alguna ocasión, en el que tuvo que sustituir en el servicio de trinchera a un compañero, Alejandro se expresaba así por la radio al enlazar con la del general: “¡Valiñoquieres, aquí te pongo pronto...” *Páginas después, el autor nos aporta algunos interesantes datos más:* “Finalmente, Alejandro era fotógrafo profesional. Las fotografías –únicas– que como oro en paño guardamos sus compañeros (algunas se reproducen en este libro) las sacó él: en el frente y en las reuniones anuales... Para salir en el grupo con todos, Landaburu ponía el disparador automático de su “Kodak” y luego corría –bueno, es un decir, en realidad “anadeaba” presuroso balanceando sus carnes– para incorporarse al grupo, y este **número** era siempre igual. Le llamábamos “la carrera de Alejandro”.

*Landaburu compaginaba su trabajo de taxista con su afición fotográfica. Tenía predilección por los monumentos: palacios, iglesias, imágenes, ermitas, escudos y caseríos, tan abundantes en Elorrio, sin olvidar los paisajes, las costumbres populares, personajes y cuadrillas. No sabemos cuándo tomó la fotografía de forma profesional, sacando fotos de carnet, fotografías de estudio, bautizos, comuniones, bodas, fotografía industrial, etc. En su archivo se conserva un cliché con una factura de 1954, donde Alejandro hace una fuerte inversión; esto nos hace creer que pudo ser, si no el inicio de su época profesional, sí el soporte mínimo para realizar fotografías con un material más adecuado. Compró en Foto Velox de Bilbao, una cámara Retina II Xenon por 4.500 pesetas, un flash Multiblitz por 4.700 pesetas, además de carretes fotográficos.*



*Alejandro era fotógrafo profesional. Las fotografías –únicas– que como oro en paño guardamos sus compañeros (algunas se reproducen en este libro) las sacó él: en el frente y en las reuniones anuales... Para salir en el grupo con todos, Landaburu ponía el disparador automático de su “Kodak” y luego corría –bueno, es un decir, en realidad “anadeaba” presuroso balanceando sus carnes– para incorporarse al grupo, y este **número** era siempre igual. Le llamábamos “la carrera de Alejandro”.*

Landaburuk taxi-gidariaren lana eta argazkizletasuna uztartzen zituen. Monumentuak zituen gogokoak: Elorriion hain ugari ditugun jauregi, eliza, irudi, ermita, armari eta baserriak; paisaiak, herriko ohiturak, pertsonaiak eta koadrilak ahaztu gabe, noski. Ez dakigu argazkigintza noiz hartu zuen lanbide moduan. Alegia, ez dakigu noiz hasi zen ateratzen nortasun-agiriko argazkiak, estudio-ko argazkiak, bataio, jaunartze eta ezkontzetakoak, industriakoak, etab. Bere artxibategian oraindik ere gordeta dago 1954ko faktura daraman klitxe bat. Fakturan ikus daiteke Alejandrok inbertsio handia egin zuela, eta horrek pentsarazten digu hora izango zela garai profesionalaren hasiera, edo behintzat, orduan lortu zuela material egokia erabiliz argazkiak ateratzeko gutxieneko euskarria. Bilboko Foto Velox dendar Retina II Xenon argazki-kamera bat erosи zuen 4.500 pezeta ordainduta, Multiblitz flaxa ere bai 4.700 pezetan, eta horiez gain, 120 formatuko argazki-karretek eta bestelako materialak. Pentsa, hori guztia 1954ko garai haietan!

Ez zuen kalean argazki-dendarik jarri. Bezeroak etxera joaten zitzaitzion, General Mola kaleko (gero Buskantz kalea izango zena) 2. zenbakaren lehenengo solairura; edo bestela, erreportajea egiteko lekua zehazten zuten berekin. Argazki-laborategi nahiko kaxkarra zeukan, etxeko sukaldanean bertan. Hantxe izaten zituen, arraskaren ondoan nahastuta, errebelatzeko produktu kimikoak eta sukaldeko



Alejandro bere furgoiarekin 40. hamarkadan.

*ficos de formato 120 y otros materiales; estamos hablando de cantidades del año 1954.*

*No abrió tienda de fotografía a pie de calle; los clientes iban a su casa, en la calle General Mola, en el primer piso del número 2, luego calle Buskantz, o concertaban con él el lugar de realización del reportaje. Su laboratorio fotográfico era bastante precario; lo tenía instalado en la cocina de su casa, donde las botellas con productos químicos para el revelado se entremezclaban con útiles culinarios y bandejas junto a la fregadera; allí revelaba sus rollos y los de sus clientes aficionados. Su estudio lo tenía en el salón, una habitación presidida por un monumental reloj, en la que una alfombra y una cortina de fondo, aderezado a veces por una silla o taburete, conformaban la esencia de un escenario, donde sus vecinos posaban para la posteridad, ante su cámara de estudio o una cámara convencional, sobre un trípode y unos focos. Si hacía buen tiempo, invitaba a sus clientes a la terraza donde les hacía el retrato. Al lado de la cocina, una pequeña habitación guardaba los materiales fotográficos y una gran ampliadora de chapa negra Zeiss Ikon, junto a otra más pequeña y manejable.*

*Utilizó máquinas fotográficas de distintos formatos. En una primera época realizaba sus vistas de monumentos en placas de cristal pero, rápidamente, pasó al celuloide de tamaño medio, alternando este formato con el de 35 mm. con la mítica cámara Leica y después con la Retina de Kodak.*

*En la década de los sesenta otros fotógrafos iniciaron su actividad profesional en Elorrio: José Leibar, fallecido prematuramente; Joyma, que abrió tienda en la calle Carlos VII, actual calle Erreka y Foto Trujillo, que trabajaba en su vivienda. Ninguno de estos nuevos fotógrafos se dedicaba a la fotografía en exclusividad, ejercían el pluriempleo; el trabajo en talleres lo compaginaban con la nueva actividad.*

*Alejandro Landaburu notó la competencia, sin duda. Siguió con la fotografía y editó una interesante serie de*

lanabesak eta bandejak. Han errebelatzen zituen bere pelikulak eta baita bezero argazkizaleenak ere. Estudioa, berriz, egongelan zeukan. Erloju eder batek, alfonbra batek, egonlekuaren hondoko gortina batek, eta argazkiaren arabera eserleku edo aulki batek osatzen zuten trípode baten gainean jarritako estudioko kamera baten edo kamera arrunt baten eta argi batzuen aurrean jarrita bere auzokideak etorkizunera pasatzeko eszenatokia. Eguraldi ona egiten zuenean, bezeroak terrazara gonbidatu eta hantxe ateratzen zien argazkia. Sukaldearen ondoko gela txiki batean gordetzen zituen argazkietarako materiala, txapa beltzko Zeiss Ikon handigailu handia eta beste handigailu txikiago eta erabilgariago bat.

Hainbat formatutako argazki-kamerak erabili zituen. Hasiera batean monumentuen bistak kristalezko xafletan egiten zituen, baina segituan tamaina erdiko zeluloidea erabiltzen hasi zen. Formato hori eta 35 mm-koa txandakatzen zituen Leica kamera mitikoarekin hasieran, eta Kodak-en Retinarekin ondoren.

Hirurogeiko hamarkadan Elorrioko beste zenbait argazkilari hasi ziren profesional moduan: Esate baterako, José Leibar, oso gazterik hil zena; Joyma, Carlos VII. kalean (gaurko Erreka kalea) denda ireki zuena; eta Foto Trujillo, etxetik lan egiten zuena. Argazkilari horietako inor ez zen argazkilalaritzan soilik jardun; lanbide bat baino gehiago zituzten. Tailerretako lana eta argazkilaritza, biak behar zituzten eguneroko ogia irabazteko.

Ezbairik gabe, Landaburuk nabarituko zuen, bai, lehia. Argazkigintzan jarraitu zuen, eta Elorrio gaitzat hartuta postal-bilduma interesgarri bat egin zuen, zuri-beltzean, eta ondoren eskuz margotuta, garai hartan ohitura zen bezala. "Eskualde-arkitektura tipikoko nazioarteko 1. lehiaketa"n Valca sarie-



*Argazki laborategia Alejandroren sukaldean.*

*postales de la villa de Elorrio en blanco y negro, coloreadas a mano, como era costumbre en esos años. En 1965 recibió uno de los premios Valca en el "1º Concurso internacional de arquitectura típica regional", certamen organizado a raíz del congreso que se celebró en Elorrio sobre dicho tema.*

*Su gran corpulencia y sus problemas de movilidad, por su cojera, hicieron que aparcara definitivamente el taxi y que, poco a poco, dejara de verse la imagen de Landaburu con su cámara al cuello. Hacia 1970 se retiró de la fotografía.*

*Falleció en Elorrio, soltero, el 2 de diciembre de 1977.*

*Sirva esta publicación y la exposición fotográfica, que en estos Errebonbillos de 2003 hemos organizado, como homenaje a la persona de Alejandro y también a una profesión que traspasa el aspecto comercial y artístico del hecho de retratar, para convertirse con el tiempo en un legado documental gráfico de indudable valor histórico, donde se reflejan retazos importantes de la vida cotidiana de Elorrio.*

*Agradecemos la desinteresada y entusiasta ayuda que tanto Pilar Landaburu, sobrina del fotógrafo, como Francisco Javier Iruarrizaga, hijo de Pilar, nos han ofrecido para realizar este pequeño homenaje, así como el interés y colaboración recibidos de Niko Moreno, Jon Román, José Luis Arruabarrena y Aitor Larrañaga; gracias también al ayuntamiento de Elorrio, por su patrocinio y a la Caja Laboral por la cesión de su sala de exposiciones.*

JOSE MARIA URIARTE ASTARLOA

tako bat lortu zuen 1965ean. Elorrión antolatu zuten lehiaketa, herrian bertan egin zen gai horren inguruko kongresua zela eta.

Bere gorpuzkera handiak eta herrentasunak eragindako mugikortasun-arazoek bultzatuta, behin betiko utzi zituen taxi-gidariaren lanak, eta poliki-poliki, kamera lepotik zintzilik zeraman Landabururen irudia gero eta gutxiagotan ikusiz joan ginen. 1970 aldera utzi zuen argazkigintza.

Eta 1977ko abenduaren 2an hil zen Elorrión, ezkongabe zela.

Izan bitez 2003ko Errebonbilloetarako prestatu ditugun argitalpena eta argazki-erakusketa Alejandro zein ikuspegi komertziala eta artistikoa baino harago doan argazkigintzari omenaldia egiteko; azken horrek, denboraren joanarekin zalantzarak gabeko balio historikoa duten Elorrioko eguneroko bizitzako pasarte garrantzitsuak ondare dokumental-grafikoaren bidez gorde dizkigulako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu argazkilariaren iloba den Pilar Landabururi eta bere seme Francisco Javier Iruarrizagari, omenaldi xume hau egiteko eman diguten laguntena eskuzabal eta gogotsuarenagatik. Eskerrak Niko Moreno, Jon Román, Jose Luis Arruabarrena eta Aitor Larrañagari ere jarritako gogoarengatik eta emandako laguntzarengatik; eta nola ez, eskerrik asko Elorrioko Udalerri babesarenagatik eta Euskadiko Kutxari erakusketa-aretoa uzteagatik.

JOSE MARIA URIARTE ASTARLOA



*Argazki estudioa  
egongelan.*



**ARGAZKIAK**



*Atsedenaldia Bizkaiko frontean 1937.*



*Karlisten desfilea  
40. hamarkadan.*



Lagunen bazkaria Alejandroren etxearen 1962. Ezkerretik eskumara: José A. Arruabarrena, Julián Urresti, José Kapelastegi, Tomás Landaburu (zutik), Euba, Juan A. Elkoro, Eduardo Diego eta Juan Cruz (Arbelo).



Jakoba tabernan 1959. Ezkerretik eskumara: Herminio Urizar, J. Ramón Zabarte, Antonio Basterretxea, Blanca Egidazu, Tomás Landaburu, Fidel Azkoaga (atzean), Adrián Larrañaga eta Javier Garaizabal.



Ezkerrean Maria Uribarrena eta bere bi alabak: Inma eta Pilar Landaburu.



*Julian Landaburu, Eloy Abadia "Kagantxo" eta Fidel Azkoaga "Jakoba".*



*Maria Isabel Gallastegi, M<sup>a</sup> Puy Olabegogeaskoetxea, M<sup>a</sup> Victoria Gallastegi, M<sup>a</sup> Pilar Agirre eta Pilar Landaburu 1962.*



*Lucio Etxebarria "Txatua" alguazila, Tomas Landaburu eta Lasturreko zezenen jabea Parra tabernan.*



Jaiak 1968. Zutik: M<sup>a</sup> Asun Larrañaga, Isabel Etxebarria eta Loli Maortua. Makurtuta: Maite (Gasteizko laguna) eta Matisa Maortua.



*Elorrioko musika banda. 1. ilara, ezkerretik eskumara: Joaquín Blanco, Jesús Areitioaurtena, Beitia, Benito Zubia, Ramón Altuna (umea), Mario Ureña, José Luis Eriz, José Leibar, Diego Oliber. 2. Ilara: Enrique Igartua, Luis M<sup>a</sup> Urizar, Luis Herrera, Melitón Irazabal, Escriv, (?), Larrea, Tomás Fernández, Lorenzo Igartua. 3. Ilara: Jesús Beitia, Flores, José M<sup>a</sup> Urrutia, Javier Igartua, Juan M<sup>a</sup> Bastarretxea, Félix Urrejola, Gorriti, Javier Berrueta.*



*Ohorezko tenientea, 2.  
Guda karlistan  
burrukatzeagatik  
(1873-1876). Berrio  
auzoko Orbe-  
Gainekoa baserrian,  
40. hamarkada.*



*Pilar Landaburu,  
Alejandroren iloba.*



Fco. Javier  
Iruarrizaga,  
Landabururen  
argazki  
estudioan 1968.



*Ume baten gorpua.*



*Ildefonso Ventoso eta Maria Askasibar.*



*Laureano Landaburu  
alguazila eta bere  
emaztea  
Patricia Arbulu.*



Hiru bikoteren ezkontza: Raquel Kortabarria - Felipe Basabe, Amaia Kortabarria - Julián Mendizabal, José Kortabarria - M<sup>a</sup> Esperanza Ugaldea.



Claudio Gallastegi  
lehenengo Jaunartzea  
ematen Jesús  
Sagastizabali, bere  
abadetzako zilar  
ezteguan 1956/7/4.  
Alicia Etxebarria erdian  
eta Jose Ignacio  
Gallastegi (elizmutila).

*Landaburu*



*Julian Landaburu motorrarekin.*



*Miota auzoko  
Estakasolo  
baserriaren  
aintzinako  
sukaldea 1961.*



Hilarria Mendrakako  
Tomas deunaren  
baselizan 1964.



Eskumatik hasita: Jose Ramon Zabarte, Juan José Jauregi (mutila), María Azkoaga (Mari Tanger), Jose Mari Atxa eta Eduardo Belar (kale erdian).



Carmen Arietaleanizbeaskoa (Leiz auzoa).



*Labakua.*



*Belerin bainuetxea.*



*Santa Anako Gurutzea eta lorategia Arespakotxaga jauregi ondoan.*



*Kasajara jauregiaren lorategia.*



Jesús Moreno, José Sagastizabal, Rafael Bazeta, Vidal M<sup>a</sup> Zuazua. Errebonbilloak 1949/5/19.



*Argazki industriala* 1965.



Errebonbilloak Errosarioko irudiarekin. Ezkerrean Onagoitia kapitaina, erdian Juan Izurrategi parrokoa eta eskuman Txanbolin tanboliteroa.



*Idi probak. Fernando Ania karreteroa; eskuman, zutik, Antonio Arruabarrena eta bere ondoan, makurtuta, Andres Azkarate eta Upategi "Aldape".*



Bariku Santua. Ezkerretik eskumara: Ana M<sup>a</sup> Gutierrez, Merche Eriz, Joseba Irazabal, Edurne Urizar, Lourdes Ariznabarreta eta Begoña Larrañaga.



1958/7/4. Prozesioa Valentín Berriotxoa Deunaren irudiarekin.



*Corpus Christi. Sarraua "Amandarro" ezkerreko banderarekin; Jose M<sup>a</sup> Urrutia "Atxin" erdian; Gotzone Gallastegi erdiko emakumea.*



*Kamioi istripua  
Kanpazarren. Behean,  
Tomas eta Emilio  
Landaburu eta goian,  
ezkerrean Juan  
Agustin Elkoro,  
José Cantero eta  
Zabaleta.*

*Landaburu*



*Industrial Cerrajeraren istripuan hildakoen hileta elizkizuna 1966.*



*Eleizalde futbol zelaiko tribunaren inaugurazioa. Elorrio eta AtletiC futbol taldeak.*



Luistarrak 1949. Erdian, Agustín Azpíri "Ondarru" abadea.




*Elorrioko udalbatza 1967. Eskumatik hasita: Arespakotxaga, Luis Beraza alkatea; laugarrena José M<sup>a</sup> Zamora parrokoa eta zutik Alvaro Pascual, idazkaria.*



*Bazkaria Argiñetan kofradi egunean.*



*San Juan Sua, Tola jauregi ondoan 1967.*



Berrioxoa kalea Elorrioko jaietan 1968.



Zezenak. Eskuman "Etxeba" eta koadrilakoak.



*Harrobia  
Udalaitzen  
1961.*

Liburu honen inprimaketa 2003ko irailaren 26an amaitu zen,  
Alejandro Landaburu Argazkilariaren  
erakusketa zabaldu zen egunean,  
Bilboko Berekintza moldiztegian

FOTO LANDABURU

**General Mola, 2 - Teléf. 23**

**ELORRIO (Vizcaya)**



**Bizkaiko Foru  
Aldundia**

Kultura Saila

**Diputación Foral  
de Bizkaia**

Departamento de Cultura



**Elorrioko Udala**